



Biharko mugikortasuna

Ira. 12 2024

Kod. Z24-24

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2024

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Ira. 12 2024

Kokalekua

Igartzako Jauregia

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea



Fundación
BBVA



Azalpena

Ziur esaldi hau entzun duzula: iraunkortasunaz hitz egiten denean, ekintza bakoitzak axola du, mugimendu bakoitzak axola du. Ahaleginak ahalegin, mugikortasunak hazkunde azkarreneko kutsadura-iturria izaten jarraitzen du mundu mailan, izan ere, munduko isurpen guztien % 23 izan zen 2022an, Nazioarteko Energia Agentziaren arabera. Are gehiago, proiektzio desberdinen arabera datozen urteetan isurpenak handitu egingo direla dirudi, berehalako doikuntzak ezartzen ez badira behintzat. Eta, hala ere, oraindik bada itxaropenik: zero emisioko mugikortasuna sustatzen duten eredu berriak, ibilgailu konektatu, kooperatibo eta autonomoa; azken milako hiri-logistika; garraio publiko hobetuak; eta hirian mugitzeko garraio modu aktiboago eta eraginkorragoa bultzatzen dituzten sare multimodalak. Aukera horiek, gizarteratze-politikekin eta "zero" ekonomia garbietara igarotzeko ahalegin konbinatuarekin batera, hiri-mugikortasunaren benetako iraultza bultzatzen ari dira.

Helburuak

Mugikortasun konektatu, kooperatibo eta autonomoaren arloan dauden abangoardiako teknologien berri ematea.

Energia transizioaren testuinguruan, krisi-klimatikoari aurre egiteko mugikortasunak eskaini ditzazkeen etorkizuneko teknologiak plazaratzea.

Erkidegoan eta hemendik haratago, erreferente diren enpresa, ikerketa zentru, unibertsitate eta bestelako erakundeen topaleku izatea elkarren arteko sinergiak indartzeko.

Antolakuntza



Beasaingo Udala

Programa

2024-09-12

08:30 - 09:00	Erregistroa / Registro
09:00 - 09:15	Inaugurazio instituzionala. Parte hartzeko ordena: Adur Ugartemendia Leunda Beasaingo Udala - Lurraldea saileko presidentea Leire Artola Ugalde Beasaingo Udala - Alkatea Maider Kortajarena Rubio UIK - Idazkari akademikoa
09:15 - 09:45	“Una visión realista sobre la transición energética” Jacinto Lobo Barbo Renovables & Círculo de Energía Fineco-Kutxabank - Energy Advisor
09:45 - 10:15	“Liveable Mobility y el papel de las tecnologías CCAM en la nueva movilidad” Ignasi Gómez-Belinchón Railgrup - CEO
10:15 - 10:45	“Gemelos digitales y metaverso” Diego Galar Luleå tekniska universitet - Chief Technology Officer
10:45 - 11:15	Mahai ingurua: “Movilidad vs Crisis Climática” Jacinto Lobo ENCE - Energy Advisor Ignasi Gómez-Belinchón Railgrup - CEO Diego Galar Luleå tekniska universitet - Chief Technology Officer Adur Ugartemendia Leunda Beasaingo Udala - Lurraldea saileko presidentea
11:15 - 12:00	Atsedena
12:00 - 12:30	“Conducción autónoma en entornos urbanos” David Espejo ZF Autonomous Vehicles - Iberia Business Manager
12:30 - 13:00	“Hirigunean ibilgailu autonomo eta konektatuen baliozkotzea” Nere Garmendia Arcelus Naitec - Head of Mobility Business Unit
13:00 - 13:30	“Azken milako logistikaren optimizazioa” Joxemari Gallastegi Normo - CEO & Founder
13:30 - 14:00	Mahai ingurua: “De la teoría a la práctica: claves para desarrollar casos de éxito” David Espejo ZF Autonomous Vehicles - Iberia Business Manager Nere Garmendia Arcelus Naitec - Head of Mobility Business Unit Joxemari Gallastegi Normo - CEO & Founder Adur Ugartemendia Leunda Beasaingo Udala - Lurraldea saileko presidentea
14:00 - 14:05	Sintesia
14:05 - 14:15	Itxiera Álvaro Arrue BasqueCCAM

Zuzendaritza



Adur Ugartemendia Leunda

Beasaingo Udala

Adur Ugartemendia Leunda, Donostiako Arkitekturako Goi Eskola Teknikoan formatutako Arkitektoa da (2011) eta Zuzendaritza Komertzial eta Marketing-ean du Unibertsitate Masterra - UDIMA (2016). Halaber, Hirigintza Ekologikoan eta Hiri eta Toki Jasangarritasunaren Estrategian prestakuntza du Madrilgo Unibertsitate Autonomoan (2012). Baita Mugikortasun Digitalean ere, Berlingo Unibertsitate Teknikoaren eskutik (2024). Hainbat urtez eraikuntza industrializatuko enpresetako postu komertzialetan aritu ondoren, 2021an jardun publikora egin zuen jauzi Beasaingo alkaterode bilakatuz. Mugikortasunarekin lotutako jardunaldi desberdinen zuzendari izan da 2022tik, UPV/EHU-ko Uda Ikastaroen barruan, baita Europako Batzordearen CIVINET egitasmoaren enbaxadore ere, hiri jasangarrien sustapena bultzatzen duen programa.

Irakasleak



Álvaro Arrue

BasqueCCAM

Álvaro Arrue telekomunikazioetako ingeniaria da, Informazioaren eta Sare Mugikorren Komunikazioen Teknologietan masterra duena. Bere ibilbidean hainbat ekimen zuzendu ditu, besteak beste, konektatutako ibilgailuari eta ibilgailu kooperatiboari lotutako azpiegiturak eta zerbitzuak abian jartzeko eta ibilgailu automatizatuak baliozkotzeko metodologia eta prozedura berrien garapenerako proiektuak. Parte-hartze aktiboa izan du nazioko, Europako eta nazioarteko lantaldeetan eta elkarteetan, CCAMen testatzean, balidazioan eta ziurtapenean (mugikortasun autonomoa, konektatua eta kooperatiboa). 2022tik, Álvaro Arrue BasqueCCAM erakundeko zuzendari nagusia da, Euskal Autonomia Erkidegoan ibilgailu automatizatuak garatzeko jarduerak sustatzea bilatzen duen elkarte.



David Espejo

ZF Autonomous Vehicles, Iberia Business-eko gerentea

Automobilgintza datuen sektorean 15 urte baino gehiago daramatzen profesional eskarmentuduna, pertsonak arrakastarantz ahalduntzeko grinaz, elkarlaneko lan-inguruneetan, kalitatearekiko, prozesuen hobekuntzarekiko eta etengabeko bikaintasunarekiko konpromiso argia duena. Industriako ibilbide sendo horri esker ikuspegi zabala du, produktuaren garapenetik hasi eta kalitate-kontrol, prozesuen hobekuntzeta eta bezeroekiko harremanetara iritsiz. betiere nazioarteko ikuspegi ireki eta kooperatibo batek bultzatuta.



Diego Galar

Luleako Unibertsitate Teknologikoa, Teknologia-saileko burua

Condition Monitoring-ean katedraduna Lule teknologia Unibertsitatean (Suedia) eta European

Federation of National Maintenance Societies (EFNMS) erakundeko Zuzendaritza Mahaiko kidea, Tecnaliako Mantentze eta Fidagarritasun arloko ikertzaile burua izan da, eta hainbat liburu eta lan teknologiko argitaratu ditu. Gaur egun, Sisteplant Research-eko Ikerketa Teknologikoko zuzendaria da, industria adimendunerako soluzioak eta zerbitzuak garatzen dituen enpresa.



Joxemari Gallastegi

Normo, CEO & Sortzailea

Joxemari Gallastegi Normoren sortzaile eta zuzendari nagusia da. Informatika Ingeniaritzan eta Enpresa Administrazioan gradu bikoitza lortu zuen Deustuko Unibertsitatean, baita Stanfordeko Unibertsitatean Diseinu eta Ingeniaritzan Master bat ere. Hamar urte baino gehiago daramatza logistika, mugikortasun eta energia arloetan produktu iraunkorrak garatzen, bai startupe bai korporazioetan (Procter & Gamble). Teknologiaren zale sutsua, AISaturdays Euskadi sortu zuen, tokiko ikasleentzat inteligentzia artifizialaren hezkuntza eskuragarri egiteko irabazi-asmorik gabeko ekimena. Bere helburua hiriak eraldatzea da, azken miliako iraunkorrako bilakatuz.



Nere Garmendia Arcelus

Naitec, Mobility Business Unitateko arduraduna

Industria-ingeniaria TECNUN-Nafarroako Unibertsitatean, Materialen Ingeniaritzan doktorea Euskal Herriko Unibertsitatean (EHU) eta Berrikuntzaren eta Teknologiaren Kudeaketan Masterra Deustuko Unibertsitatean. Gaur egun, Nafarroako NAITEC Automozio eta Mekatronikako I+G Zentroko Mugikortasuneko Negozio Unitateko arduraduna da.



Ignasi Gómez-Belinchón

Clúster Railgroup, CEO

Esperientzia zientifikoa CSICeko Ingurumen Ikerketa eta Garapen Teknologikoko sailean . 20 urtetik gorako ibilbidea Zuzendaritza Nagusi, Proiektu Teknologikoen Diseinu eta Hedapenean. Railgrup Klusterreko zuzendaria. Proiektuen kudeaketa eta balio-katea mugikortasun jasangarri eta logistiko multimodalean. European Railway Cluster Initiative (E.R.C.I.) erakundeko kidea. IQS-Ramon Llull Unibertsitatea doktoregoa. Bartzelona. PAD eragiketak. ESADE.Mating-programa. ASHRIDGE. Berkhamsted. Ingalaterra.



Jacinto Lobo

Barbo Renovables & Círculo de Energía Fineco-Kutxabank, Energia aholkularia

Jacinto Lobo Morán Industria Ingeniaria da, Energia Tekniketako espezialitatea, Bilboko Eskolan. Energia ekoizteko sistemetan 40 urtetik gorako esperientzia izanik, EEEdo (Energiaren Euskal Erakundea), Bizkaia Energiako eta Ence Energía y Celulosako (biomasak) zuzendari nagusia izan da. Gaur egun, Barbo Renovableseko (32 minizentral hidroelektriko kudeatzen dituen enpresa) eta Kutxabank Energia Fineco-Zirkuluko kontseilaria da.



Adur Ugartemendia Leunda

Beasaingo Udala

Adur Ugartemendia Leunda, Donostiako Arkitekturako Goi Eskola Teknikoan formatutako Arkitektoa da (2011) eta Zuzendaritza Komertzial eta Marketing-ean du Unibertsitate Masterra - UDIMA (2016). Halaber, Hirigintza Ekologikoan eta Hiri eta Toki Jasangarritasunaren Estrategian prestakuntza du Madrilgo Unibertsitate Autonomoan (2012). Baita Mugikortasun Digitalean ere, Berlingo Unibertsitate Teknikoaren eskutik (2024). Hainbat urtez eraikuntza industrializatuko enpresetako postu komertzialetan aritu ondoren, 2021an jardun publikora egin zuen jauzi Beasaingo alkaterode bilakatuz. Mugikortasunarekin lotutako jardunaldi desberdinen zuzendari izan da 2022tik, UPV/EHU-ko Uda Ikastaroen barruan, baita Europako Batzordearen CIVINET egitasmoaren enbaxadore ere, hiri jasangarrien sustapena bultzatzen duen programa.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2024-05-31 ARTE	2024-09-12 ARTE
Gazte tarifa	12,00 EUR	15,00 EUR
Orokorra	-	25,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	20,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	15,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	-	20,00 EUR
Donostia Kultura	-	20,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	20,00 EUR
Elkar	-	20,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2024-05-31 ARTE	2024-09-12 ARTE	2024-09-20 ARTE
Gazte tarifa	12,00 EUR	15,00 EUR	-
Orokorra	-	25,00 EUR	-
Matrikula murriztua orokorra	-	20,00 EUR	-
Matrikula exentzioa	-	15,00 EUR	-
Ikastaroak guztiontzat	-	20,00 EUR	-
Donostia Kultura	-	20,00 EUR	-
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatatuko kide	-	-	20,00 EUR
Elkar	-	-	20,00 EUR

Kokalekua

Igartzako Jauregia

Igartzako Monumento Multzoa. Peategi z/g. 20200 Beasain

Gipuzkoa